Liburuak

KRITIKA

Emakume beltz arruntarentzat

Helduen literatura

Aritz Galarraga

BADA AMAIA LASA BAT, poeta, euskal literaturaren mundutxoan hartu duena tartea. Meritua, besteren gainetik: emakumearentzat arrotz zen lurraldean hasi zela eraikitzen alfabeto berri bat. Dena zegoen egiteke eta egiteko, beraz. Eta bekatutik eta amatasunetik libro den emetasuna ekarri zuen berak. Amaia Lasa da, Koldo Izagirreren hitzetan, gure literaturaren lehen emakumea, dakarrelako lehenengoz emakumea gure letretara.

Baina izan bada beste Amaia Lasa bat, kasu honetan narratzailea. Eta izan badu narrazio bilduma bat, bakarra, 88koa: *Malintxearen gerizpean*. Poesia 70etan, narrazio laburra 80etan. Ez pentsa, Sarrionandia eta Atxaga ere orduantxe ari ziren ipuinekin, garai egokia izango zuten horretarako aurrekoen aldean. Kontua da narrazio laburraren eremuan, halaber, desertua zuela Lasak aurretik. Eta berak ekarri zuela lehenengoz, Arantxa Urretabizkaiarekin batera, emakumea euskarazko narrazio laburrera ere.



Malintxearen gerizpean.
Amaia Lasa Alegria.
Pamiela, 1988.

Emakumea edo emakumeak, egia esatera. Ipuin bilduma –poema pare bat ere badu, baina tira–, bi multzotan bana baitaiteke: Euskal Herriko ipuinak eta Euskal Herritik landakoak –badakit ez dela sailkapen sobera akademikoa–. Eta Euskal Herrikoak ez zaizkit hainbeste interesatu, lirikoagoak dira, iradokikorragoak. Baina Euskal Herritik landakoak bai, defendatzeko emakumeak ekarri zituela Lasak gure letretara. Nikaraguan girotuta daude hiru ipuin, laugarren bat AEBetan, New York hiriko Harlem auzoan.

Eta horiek dakarte berrikuntza, egiten baitute ez soilik genero aldetik ekarpena, baizik eta baita ere klase eta arraza aldetikoa. Nikaraguako iraultza sandinistaren baitan, bertako emakume txiroen esperientzia azaltzen zaigu, gerrillariena, kanpotik etorri den yankiak iraultza egiten ari den nikaraguarrari lezioak nola ematen dizkion, eta azken honen akidura eta haserrea, betiko kritikaren aurrean: "Gaingiroki begiratzen gaituzue eta zuen herrietan egin ez duzuena, guk, orain, berehalaxe egitea nahi duzue. Zuek ere azken finean dolarrekin etorri eta epaitzeko eskubidearekin sentitzen zarete". Eta Harlemgo Ritak nola esaten duen hau: "Kaleko edozein izkinetan, emakumea eta beltza naizela jakinarazten didate". Edota nola sentitzen den "beti zurien kakak kentzen".

Marisa Young Blanco Nikaraguako poetisak idatzitako hitzaurre argigarrian, esaten da liburua emakumeen arteko elkarrizketa dela: "*Y justo ahora cuando escribo, siento que estoy conversando contigo, compañera*". Liburua amaitu dudanean ohartu naiz osoki liburua emakume beltz arruntarentzat idatzia dagoela, baiki, ni ere banaizen emakume beltz arruntarentzat.